

ON LINE GRADUONDOKO BEREZKO TITULUA: ESPERIENTZIA TRAUMATIKOETAKO BIKTIMEKIN LAN EGITEA 2019- 2020



ZERGATIK GRADUONDOKO HAU?

Biktimologia zientzia enpiriko eta diziplinarteko bat da, biktimizazio prozesuak aztertzen dituena. Arreta berezia jartzen du biktima arriskuan eta inpaktuan, desbiktimizazioan, eta baita biktimaren berreskuratze faktoreetan ere. Prestakuntza integrala, diziplinartekoa eta lanbide artekoa ematen du, biktimekiko esku-hartzeari dagokionez gizarteak dituen beharrei buruzkoa, Europako arautegiak eskatzen duen moduan. Ikasitakoari esker, biktima zuzen edo zeharkakoen lehen eta bigarren mailako biktimizazioa saihesten lagundu dezake ikasleak, haien bizi baldintzak hobetzen, baita biktimen komunitatearen gizarte kohesio eta inklusio maila ere.

Graduondoko hau hutsune bat betetzen saiatzen da, prestakuntza profesionala eta praktikoa ematen, diziplina anitzeko ikuspegi batetik. Lizentziadun edo graduadunentzat da, ikasle nahiz profesional, biktimekin harremanetan daudenak edo norabide horretan beren prestakuntzan sakondu nahi dutenak, lan eraginkorrago bat egiteko biktimekin.

Graduondokoaren egiturak kontuan hartzen ditu bai hamar urtetik gorako bere garapena, bai Europako arautegiaren transposizioa egiten duen apirilaren 27ko 4/2015 Legeak (Delituaren Biktimaren Estatutua) ezartzen dituen eskakizun profesionalak eta prestakuntza eta sentsibilizazio arlokoak.

ZER GAI AZTERTUKODIRA?

Modulu orokorra:

- Biktimologia: biktimizazio mota guztien alderdi kontzeptualak eta metodologikoak
- Esku-hartze psikologikoa eta alderdi juridikoak gertakizun traumatikoen biktimen laguntzan

Nahitaezko espezialitateen modulua:

- Terrorismoaren biktimak
- Familia babesik gabe arriskuan dauden adingabeak
- Sexu eraso eta abusuen biktimak
- Indarkeriaren biktimak bikote eta etxe harremanetan
- Biktimak eta osasun sistemak

NORENTZAT IZAN DAITEKE INTERESGARRI?

Profesionalentzat eta gizarte eta lege zientzietako, giza zientzietako eta osasun arloko lizentzia edo graduetaiko ikasleentzat: Zuzenbidea, Kriminologia, Psikologia, Soziologia, Antropologia, Filosofia, Irakasle ikasketak, Pedagogia, Gizarte Langintza, Psikopedagogia, Gizarte Hezkuntza, Informazioaren eta Komunikazioaren Zientziak, Erizaintza, Zientzia Politikoak edo zerikusia duten beste titulu batzuk.

ZERTAN DATZA ON-LINE GRADUONDOKOA?

Graduondokoa *egela* plataformaren bidez egingo da, zeinak erraztu egiten duen ikasleekiko etengabe harremana eta haien lanaren gainbegiratzea, eta ziurtatu egiten duen ikasleek graduondokoaren edukia teorikoki eta praktikoki ikastea.

GAINDITU BEHARREKO KREDITUAK: 31,4 ects

HIZKUNTZA: gaztelania

NOIZ ETA NOLA EMAN IZENA?

Irekita plaza kopurua bete arte.

<http://www.ehu.es/es/web/titulospropios/izena-emateko-prozedura>

PREZIOA

30,00 euro kreditu bakoitzeko

IRAUPENA

2019/10/14tik 2020/07/08ra

NON LORTU INFORMAZIO GEHIAGO?

- www.ehu.es/ivac
- **Kriminologiaren Euskal Institutua**
Carlos Santamaria Zentroa
Elhuyar plaza, 2
20018 Donostia (Gipuzkoa)
- **Telefonoa:** +34 943 0174 84
- **E-mail:** postgradovictimias.ivac-krei@ehu.es

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

